

**BILBON ZUZENEAN KONTSUMITZEA SUSTATZEKO PROGRAMAREKIN
(MERKATARITZAKO BILBOKO BONUAK 2021) BAT EGITEKO DOKUMENTAZIOA**

Bilbon zuzenean kontsumitzea sustatzeko MERKATARITZAKO BILBOKO BONUAK 2021 programarekin bat egiteko, establezimenduek inprimaki elektroniko bat (www.bonobilbao.eus) bete beharko dute; datu guztiak ondo bete eta honako hau erantsi beharko diote:

- Ekonomia-jardueren gaineko zergan eta, zehazki, deialdi honetan jasotako jarduerarekin zerikusia duen epigrafean alta emanda dagoela egiaztatze dokumentua.
- Kontu korrante bat bere izenean duela egiaztatzen duen dokumentua.
- Establezimenduaren irudia.

Bat egiteko eskaera egiten duen establezimenduak edo entitateak honako **konpromiso hauek hartuko ditu bere gain:**

- Bilbon zuzenean kontsumitzea sustatzeko MERKATARITZAKO BILBOKO BONUAK 2021 programa kudeatzeko ezarritako baldintzak jakin eta onartzen ditu.
- Egunean ditu Zerga Ogasunarekiko, Bilboko Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak.
- Programarekin bat egingo du, eta bertan ezarritako konpromisoak aintzat hartzeko konpromisoa hartzen du.
- Programarekin bat egiterakoan, bertan parte hartuko duela joko da, salbu eta programa amaitu baino lehen baja eman nahi duela idatziz adierazten bada.
- Kontsumitzaileei programaren ezaugarrien berri emateko konpromisoa hartzen du.
- Programaren identifikazio-materiala establezimenduan ondo ikusten den leku batean jartzeko konpromisoa hartzen du.
- Kontsumitzaileei ez die inola ere eskudirutan itzuliko erosketaren zenbatekoaren eta BILBOKO BONUAREN balioaren arteko aldea, ez erosteko unean, ez erositakoa geroago itzultzen bada.